

OSTEGUNA

2020/04/30
8. urtea, 1.230. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

Merkatariak laguntzeko neurriak iragarri dituzte udalek

Amasa-Villabona, Zizurkil, Ibarra edota Irurako udalek diru laguntza desberdinak onartu dituzte // 2

Jarduera fisikoa egiteko aukera izango da larunbatetik

Lau fasetan zehar malgutzen joango da konfinamendua // 3



Pasa den urteko Asteasuko San Pedro festetako egun nagusiko irudia; aurten ez da errepikatuko. J.A.D.

Herrietako jaiak udazkenera atzeratzea ari dira pentsatzen

Osasun krisiaren ondorioz, epe laburrean ezingo da ekitaldi jendetsurik egin, beraz, sasoi honetan ospatzekoak ziren festak bertan behera utzi dituzte; batzuk unean uneko egoeraren zain daude erabakitzeke // 4

Amasarako bidea hobetzeko eskatuko dio udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari

Amasako bizilagunek segurtasun baldintzen inguruan azaldutako kezka eta ezinegona konpartitzen du. Bide Azpiegitura sailarekin jarriko da harremanetan egoera azaltzeko // 6

Zortzigarren postuan amaitu du lehen maila nazionaleko Tolosa Eskubaloiak

Espainiako Federazioak bukatutzat eman du aurtengo denboraldia, beraz, jokaturako azken jardunaldian zeuden sailkapenak hartu dira kontuan; tolosarrak «oso pozik» geratu dira // 7

Neurri sortak iragarri dituzte merkatariak laguntzeko

Beste beste, Amasa-Villabona, Zizurkil, Ibarra eta Irurako udalek merkatari eta ostalariak lagunduko dituzte COVID-19ak eragindako krisia gainditzeko

Erredakzioa

Amasa-Villabonako udal gobernuak COVID-19aren eraginez martxotik itxita dauden merkataritza eta ostalaritzari negozioak laguntzeko neurriak hartuko dituela iragarri zuen aurreko astean eta horrela berretsi zuen astearteko osoko bilkuran, gainerako alderdi politikoetako ordezkarien aurrean. «Zalantzarik gabe, krisi honen eragina izugarria izaten ari da gure herriko sektore ekonomiko garrantzitsuena den honetan eta derrigor ateak itxi behar izan dituzten denda eta tabernetako langile eta arduradunak diru sarrerarik gabe daude, horrek dakarren guztiarekin», aipatu dute udal ordezkariak.

Udal gobernuak «lehentasun gisa» ezarri du merkataritza eta ostalaritza laguntzea eta horretarako zenbait neurri iragarri ditu. Besteak beste zabor bilketa-ri dagokion zergan edo espazio publikoaren erabilera gatik kobratzen den tasan onurak izango dituzte, baita Ondasun Higiezin gainerako Zergari dagokionean ere.

Bestalde, Amasa-Villabonako Udalak hileroko diru laguntza bideratuko die COVID-19aren eraginez derrigor itxita dauden (edo egon diren) denda eta tabernei. Diru laguntza horiek banatzeko, 300.000 euroko diru poltsa aurreikusitako diru laguntza, nahiz eta datozen egunetan zehaztuko duen hileroko zenbateko diru kopurua jasoko duen denda edo taberna bakoitzak. «Udala COVID-19aren krisiaren ondorioz herriko merkataritza eta ostalaritzak bizi duen egoeraren diagnostikoa osatzen ari da eta horretarako ezinbestekoa da merkatariekin eta ostalariarekin harremanetan jarri, diotena entzun eta dituzten egoeren berri lehen eskutik jasotzea», aipatu dute udal ordezkariak.

Norabide horretan, ostalariarekin eta merkatari elkartearekin elkarlanean, herritarrek herriko merkataritza «txikian» eta tabernetan kontsumitzeko bonu bidezko sistema bat ezartzeko as-



Villabonako Kale Nagusian herritarrek erosketak egiteko txanda itxaroten. J.M.

moa du udalak. Gaur egun, 10.000 euroko partida ekonomiko bat jarria dute helburu honetarako. Udal ordezkariak aipatu dutenez, «agerikoa» da kopuru hori ez dela nahikoa izango herriko merkataritza eta ostalaritzari behar duen bultzada emateko. Ondorioz, partida ekonomiko hori modu esanguratsuan handitzeko konpromisoa hartu dute udal ordezkariak.

Amaitzeko Amasa-Villabonako udal gobernuak iragarri du, osasun krisiaren egoerak aukera ematen duenean tokiko ekonomia suspertzeko dinamika bat jarriko duela martxan. *Berpiztu Amasa-Villabona* leloa eramango du eta ekimen honen inguruan herriko kaleak biziberritzen lagunduko duten kultur, kirol eta aisialdi ekitaldiak antolatuko dituzte. Kanpaina honen bidez, udalerrak «bizitasuna» berreskuratzea nahi du udalak, «modu horretan ostalaritzari ere bultzada emanez».

ZIZURKILEN ERE LAGUNTZAK

Zizurkilgo Udalak erabaki du bere eskumenekoak diren gaiekin laguntza ematea Zizurkilgo merkatari eta ostalariari, COVID-19 birusak sortutako osasun krisiak eragindako kalteak arintzen laguntzeko. Laguntza horiek eskuratu ahal izango dituzte jarduerak itxi behar izan dituzten herriko merkatari eta ostalariak,

behar beharrezkotzat jotzen ez diren jarduerak eten egin dira, eta ondorioz, herrian establezimendu ugari itxi dira. «Azpimarratzekoa da udalerrri honetan merkataritza eta ostalaritza sektorea ahula dela, eta beraz, oso garrantzitsua dela egoera honek sektorea gehiago ez ahultzea», aipatu dute udal ordezkariak.

Eskainiko den laguntza programa jardueraren gastuak finantzatzera bideratuko da eta diru sarreraren galera arintzera. Irurako Udalaren atarian kontsultatu daitezke laguntza horiek guztiak. «Lagundu nahi dugu negozioak aldi baterako itxteak zuzenean eragindako galera ekonomikoa arintzen, eta ahal den neurrian, halako negozioak itxi beharra ekiditen».

HERRIAN EROSTEN DEIA

Ibarrako Udalak, bestalde, 82.000 euroko diru laguntza le-rrero berri bat sortu du osasun larrialdia sortu dituen eraginak «leundu» eta Ibarrako merkatari, establezimendu eta ostalariari «laguntza emateko».

Diru laguntzak emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa, kontuan hartuta establezimenduak itxita edota partzialki irekita aurkitzen diren. Establezimenduak partzialki irekita daudela kontsideratuko da %50ean edo %50etik behera lanean ari direnean. Deialditik kanpo geratuko dira %100ean lanean ari direnak edota %50etik gorako jarduna dutenak. Hori kontrolatzeko udalak inspektzioak egingo ditu.

Diru laguntzak jasotzeko eskabideak gaurtik hasita hamar eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, udaletxeko erregistro orokorrean. Eskaerak, ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztu ahal izango dira, erregistro elektronikoa- ren bitartez (www.ibarra.eus) edota honako email honetara bidalita: ingurugiroa@ibarra.eus.

Gainerakoan, herritarrei herriaren bertan kontsumitu dezate- la dei egiten die, «herriko komertzio eta ostalaritza osasuntsu atera dadin krisi honetatik».

Lopez Gazpio zientzialari tolosarrak CAF-Elhuyar saria irabazi du

Zientzia-kazetaritzako lanen kategorian eman dio epaimahaiak saria, 'Musikaren zientzia' izenburuko lanarengatik

Erredakzioa Tolosa

Lopez Gazpioaren lana zientzia- dibulgazioaren adibide apro- posa dela iruditu zaio epaimahaia- ri. Musikaren eta zientziaren arteko erlazioa oso ongi azaltzen duela aipatu du, eta, aldi berean, ongi adierazten duela musika- ren idiosinkrasia hortik harago dagoela. «Entretengarria eta erakargarria» dela ere azpimarratu du epaimahaiak.

Lopez Gazpioekin batera, di- bulgazio-artikulu orokorren ka- tegorian, Galder Gonzalez La- rrañaga wikilari zaraiztarraren *Io eta argiaren abiadura* artiku- lua aukeratu du epaimahaiak eta egilearen doktore tesian oinarri- tutako dibulgazio-artikuluen ka- tegorian, berriz, *Polimero birzi- klatu aurreratuen garapena: plastiko-hondakinei bizi berri bat emanez* artikulua irabazi du saria. Elgetako Leire Sangroniz Agudo kimikako doktorea da egilea.

Ezohikoa den osasun larrialdian, ezohiko moduan eman dira jakitera saridunak, eta ez da sari banaketa ekitaldirik izan. Hala ere, saridunek 2.000 euroko diru saria eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bana jasoko dute.

41 lan jaso dira aurten, eta parte hartzaileen artean genero-oreka egon dela aipatu dute antolatz- aileek. Aldi berean, Neiker sari berezia (lehen sektoreko lan one- na saritzen duena) eta Zientzia Gizartean sorkuntza-beka eman gabe uztea erabaki du epaimaha- iak, aurkeztu diren lanek ez dutelako sarituak izateko adina- ko kalitatearik.

Amaitzeko, Ana Zubiaga Elor- dieta genetikako katedradunak jaso du Elhuyar Fundazioaren Merezimendu Saria. Euskara normalizatzen eta zientzia gizar- teratzen egindako lanarengatik eman diote. Zubiaga EHUn irak- asle izateaz gain, ikertzaile ere bada, eta, hain zuzen, Minbizia- ren Biologia Molekularra ikerke- ta taldearen arduraduna da gaur egun.

«Normaltasun berria» jomugan

Konfinamendutik ateratzeko bidea luzea izango da eta lau fase izango ditu; datak mantentzeko pandemiaren bilakaera eta gaixoak artatzeko ahalmena hartuko dituzte kontuan



Haurrak pasa den igandean hasi ziren ateratzen. J.A.D.

Erredakzioa-Berria

Alarma egoera maiatzaren 10ean amaituko bada ere, konfinamendu egoeratik ateratzeko bidea luzea izango da, eta ekainaren amaierara arte eta beranduenez, uztailearen erdialdera arte, zabalduko da. Espainiako presidentek, Pedro Sanchezek, esandakoaren arabera, deskonfinamenduak lau geldialdi izango ditu eta lehena maiatzaren 11n bertan hasiko da. Lehenago, larunbat honetan bertan, jarduera fisikoa egiteko eta familian pase-

oak emateko aukera egongo da. Konfinamendutik ateratzeko aurreikusitako lau geldialdien datak mantendu ahal izateko hainbat baldintza jarri ditu Espainiako Gobernuak; epidemiaren beraren bilakaera, tokian tokiko osasun arretaren egoera, laneko segurtasun neurriak eta herritarren mugimenduak. Azken hitza Osasun Ministerioak izango du, eta koordinazioaren ardura Madrilek izango du. Sanchezen arabera, dena den, «kudeaketa erkidegoei, probintziei eta udalei dagokie». Erreferen-

tzia gisa, probintzia hartu dute, «egokiena» iruditu zaielako, baina erkidegoetako gobernuen proposamenak aztertzeko «prest» azaldu da, «ongi arrazoi-tuz gero».

«NORMALTASUN BERRIA»

Pedro Sanchezek behin baino gehiagotan erabili du «normaltasun berria» terminoa. Uztailetik aurrera ere mugak egongo dira, eta herritarrek hainbat ohitura berri hartu beharko dituztela dirudi. Bitarte horretan, herritarrek ezingo dira probintzia bate-tik bestera mugitu. Konfinamendutik ateratzeko prozesua «asimetrikoa» izango da eta erabaki guztiak erkidegoetako gobernuarekin «koordinatuta» hartuko dituztela esan dute.

HIRU POSITIBO GEHIAGO

Bestalde, eta COVID-19aren kutsatuen datuei dagokienez, kopuru gehien zituzten hiru herrietan zenbatu ditu positiboak Eusko Jaurlaritzak; Tolosan, Amasa-Villabonan eta Ibarrian, alegia. Hortaz, eskualdean 225 herritar kutsatu dira orain arte COVID-19arekin. Asuncion klinikan, berriz, 4 gaixo daude solairuetan ospitaleratuta, bi gutxiago. Gaixo bakar bat ere ez dago ospitaleko ZIU-n (Zainketa Intentsiboetako Unitatean). Al-tak, beraz, bi izan dira.

GELDIALDIAK

MAIATZAK 2

Jarduera fisikoa. Larunbatean hasi ahaliko da banakako jarduera fisikoa egiten eta elkarrekin bizi diren pertsonekin batera paseoak ematen. Arrisku taldeetan daudenak eta 65 urtetik gorakoak maiatzaren 4ra itxaron beharko dute.

MAIATZAK 4

Prestaketa fasea. 65 urtez gorako pertsonak eta arrisku taldeetan daudenak kalera irteteko aukera izango dute, muga batzuekin. Denda txiki eta negozio batzuek lan egin ahal izango dute, baina edukiera murriztuta eta txanda hartzen duten bezeroentzat bakarrik. Hildakoei beila egiteko modua zehaztuko dute, taldea mugatuta. Etxeko baratzeak lantzen utziko dute, baratze hori norbera bizi den herrian edo aldamenen baldin badago, eta segurtasun neurriak hartzen badira. Etxera eramateko janaria prestatzen duten jatetxe eta negozioek lanean hasi ahaliko dute. Kirolari federatu eta profesionalek banaka entrenatzen hasi ahal izango dute, baldintza batzuekin. Leku publikoak prestatzen hasiko dira, segurtasun baldintza berrien arabera.

MAIATZAK 11

Arintzearen hasiera. Probintzia barruan mugitu ahal izango da, jarritako baldintzen barruan. Denda eta negozio txikiek ireki ahal izango dute, segurtasun neurriak hartuta. Saltoki handiek ezingo dute ireki oraindik. Ostatuek terrazak ireki ahal izango dituzte, edukiera %30era mugatuta. Ezingo dute barnean bezerorik hartu. Hotelek eta lotarako lekuek ireki ahaliko dute, baldintza batzuekin. Alarma egoeran geldiarazita egon diren elikagaiaren industriak martxan jarriko dira. Gurtza lekuek ireki ahal izango dute,

edukiera %30era mugatuta. Hildakoei beila egiteko baldintzak arindu eta taldeak handituko dituzte. Kirolari profesionalen entrenamenduetan murrizpenak arintzeko asmoa dute. Harreman sozialak berreskuratu ahaliko dira, adineko jendearekin eta arrisku taldeetan daudenekin izan ezik. Taldeetan zenbat jende elkartu ahaliko den zehaztu behar dute.

MAIATZAK 25

Tarteko fasea. Taberna, jatetxe eta ostatuek barnean ere bezeroak hartu ahal izango dituzte, edukiera %30era mugatuta. Zineak, antzokiak, auditorioak, aretoak, museoak... ireki ahaliko dituzte, edukiera %30era mugatuta. Areto itxietan kontzertuak egin ahal izango dira, edukiera %30era mugatuta. Aire librean kontzertuak egitekotan, eserita izan beharko dute, eta 400 pertsona arte bildu ahaliko dituzte. Gurtza lekuek edukieraren %50 arte betetzeko aukera izango dute. Ehiza eta arrantza baimenduko dituzte. Eskolak, oro har, itxita egongo dira irailera arte, baina salbuespen batzuekin; adibidez unibertsitateko proba prestatu behar duten ikasleentzat irekitzeko aukera egon liteke. Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako, Batxilergo bigarren mailako eta Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasleek klasera itzuli ahal izango lukete, hamabost ikasleekin gelako gehienez, eta modu boluntarioan beti. Gurasoek presentzialki lan egin behar duten kasuentzat, 6 urtez azpiko umeentzat haur eskolak irekitzeko aukera ere aipatu da.

Ekainak 1

Malgutzea. Mugikortasunean murrizketak arintzeko asmoa dute, eta baita saltoki, taberna, jatetxe eta ostatuei neurriak arintzeko ere. Zahar etxeetarako bisitak baimenduko lituzkete ere.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Koronabirusak eragindako osasun larrialdia dela eta, epe laburrean ezingo da ekitaldi jendetsurik ospatu. Horregatik, bertan behera geratu dira eskualdeko zenbait herritako festak.

Arima itzaliko da, herria ez

Josu Artutxa Dorronsoro

Herri baten ezaugarri buruz galdetu ohi denean, tartetan, bertan ospatzen diren festak aipatzen dira. Festak izaten baitira herriaren ezaugarri nagusienetako bat. Ospakizun gehienak, edo handienak behintzat, udan izaten badira ere, badira udaberrian ospatzen direnak ere. Garai berrietara egokitzen jakin dutenak, eta adin, jatorri eta zaletasun desberdinetako herritarrak guñe bakar batean biltzeko gai direnak.

Izan ere, asko dira herriko festetan jendetza biltzen duten ekintzak: musika taldeen kontzertuak, bertso saioak, meza eta jarraian egiten den hamaiketako, toka txapelketak edota herri afariak. Horiek normaltasunez bizitzea, baina, ezinezkoa izango da, datozen hilabeteetan, koronabirusaren pandemiak eragindako osasun larrialdia dela eta, kalean ezingo baita jendetza biltzen duten ospakizunik egin, orain arte egiten ziren moduan.

Euskal Herriko jai ugari bertan behera geratu dira, hala nola, Iruñeko sanferminak, Irungo Alardea, Baionako festak, udaberrian ospatzekoak ziren ikastolen aldeko festak, Zuberoako Maskaradak eta Nafarroaren Eguna. Eta ikusteko dago abuztuan EAEko hiriburuetan Aste Nagusirik izango den, baina ez da halakorik espero.

PENA HANDIA OREXAN

Datozen bi hilabeteetan ospatzekoak ziren festetako lehenak dira santakruzak. Berez, asteburu honetan ospatuko ziren, Orexan.

Eneko Maioz Orexako alkateak dioenez, aspaldi hartu zuten festak bertan behera uzteko erabakia. «Pena handia dut festak galtzeagatik, baina ez genituen ezta martxan jarri ere», aitortu du.

ASTEASUN, HIRUTIK HIRU

Asteasun ere ospatu behar zituzten santakruzak, Elizmendi auzoan, baina ez da jairik izango. Horrez gain, San Isidro eguna (maiatzak 15) ere ospatzen dute; aurten, ordea, ezinezkoa izango da. Azkenik, ekaina amaitzerako, San Pedro jaiak ospatu ohi dituzte, herriko festa nagusiak. «Ez dugu erabaki ofizialik hartu, eta ea egoerak nolako bilakaera izaten duen itxaroten ari gara. Airean dago, baina ez dut uste egingo direnik», dio Pili Legarra alkateak.

LEABURU-TXARAMAN, ZAIN

Maiatza amaitzerako edo ekaina hasierarekin batera, Txaramako festak ospatu ohi dituzte. Ekaineko azken asteburuan, berriz, San Pedro festak izaten dira Leaburun. Aurten, ordea, ezingo dira behar bezala ospatu. «Ea maiatzean zer nolako bilakaera izaten duen pandemiak, eta horren arabera ikusiko da zein diren aukerak. Hala ere, momentuz, ezingo dira ospatu», dio Joxe Ramon Eizagirre alkateak.

ANOETAN, FESTARIK EZ BURUAN

Anoetan ere ospatu ohi dituzte festak. Ekainaren 11n hasiko lirakeke, alarma egoera amaitu eta hilabetera. Pello Estanga alkatearen hitzetan, ez dute festak ospatzeko asmorik, ez behintzat ezagutzen diren bezala. «Orain festak ez ditut buruan. Heltzen direnean, agian zerbait sinboli-



lazko Tolosako sanjoanetako kuadrillen eguneko une bat; aurten ez da horrelakorik ikusiko eskualdeko jaietan. I.G.L.

koa egingo da, eta irudimenari eman beharko zaio».

GAZTEAK JAIRIK GABE IBARRAN

Ekaina erdialdean, berriz, Gazte Festak ospatu ohi dira Ibarra, Gazte Asanbladak antolatuta. Bertako kide den Leire Romerok dioenez, «ez dugu ezer argitu aurtengo festen inguruan, baina ziurtzat jotzen dugu ez direla ospatuko».

ABALTZISKETAN, ORAINGOZ BAI

Tolosako sanjoanak dira, seguruenerik, inauterietan batera, eskualdeko jairik esanguratsuenak. Ekainak 24aren bueltakoak, ordea, eskualdeko beste bi herritan ere ospatzen dira: Abaltzisketan eta Belauntzan.

Festak orain ospatuko ez dituzten herrietan, udazkenean ekimen bereziak egiteko ideia dute mahai gainean

Abaltzisketan, oraingoz, ez dira atzera bota, eta festak ezagutzen diren bezala ospatzeko asmoa dutela adierazi du Jon Zubizarreta alkateak. «Erabakiak azken unean hartu behar badira ere, tartea dugu festak antolatzen. Lau egun nahikoa dira guretzat. Bertan behera utziz gero, abisatuko genuke». Hori bai, ziur dago, ospatuz gero, ez direla beti bezalakoak izango. «Egoerak ahalbidetzen badu behintzat, zerbait herrikoia egingo dugu. Gainera, segurtasun neurriak errespetatu beharko dira». Sanpedroak ere ospatzen

dituzte Larraitz auzoan, eta oraingoz horiek ere egiteko asmoa dute.

BELAUNTZAN, EZJAKINTASUNEZ

Egoerak berdin jarratzen badu, Silvia Moneo Belauntzako alkateak ez du garbi ikusten herrian San Joan festak ospatzea. «Kontuan izan behar da gehiengo adineko jendea dela. Ez dakigu orduan zein egoeratan egongo garen, ezta normaliterara nola itzuliko garen ere. Arriskua ez dagoen momentuan gu prest gaude ospatzeko, baina ez dut uste ekaina amaitzerako egoera horretara helduko garenik».

SANJOANIK GABEKO TOLOSA?

Zaila izango da irudikatzea. Kuadrillen bazkaririk ez Euskal Herria plazan, su garrik ez Andre Maria plazan, eta are gutxiago, alarde koloretsua herriko kaleetan. Dirudenez horrelakorik ez da izango, Tolosako San Joan festetan, ez direlako orain arte bezalakoak izango.

Pasa den astean egin zuten bilera udalak eta eragileek, zenbait erabaki hartzeko. Pandemiaren garapenaren zain daude, baina argi dago ez dela jende pilaketarik izango. Eszenatoki desberdinetarako plangintzak egingo dituzte, zer salbatu daitekeen eta zer den egingarria erabakitzeko asmoz. Oraindik ezer baieztatu ez duen arren, bertualki, telebistaren bitartez edo, zerbait sinbolikoa egiteko aukera mahai gainean du udalak. Urkizu auzoan ere ez dituzte sanpedroak ospatuko.

UDAZKENA JOMUGAN

Eta behar bezala ospatu ezin badira, zein da alternatiba? «Une honetan dagoen ezjakintasunarekin askori zaila egiten zaigu noiz ospatu ahalko diren jakitea», dio Maiozek. Hala ere, zenbait udaletxe hasiak dira aukera berriak pentsatzen, edota beranduago ospatu ahal diren edo ez pentsatzen. Gehienek, udazkena eta orduko zenbait data dituzte jomugan. Anoetan ez dituzte festak atzeratuko, nahiz eta ordurako aurreikusita zituzten ekitaldi batzuk urtean zehar egiteko aukera mahai gainean izan.

Orexako auzo batean esaterako, festak ospatzen dira sanjoanetan, eta hori ere beste aukera bat zen, santakruzak orduan egiteko. «Urriaren aste kulturala dugu, eta beraz, horri ere beste ukitu bat eman ahal diogu».

Beste herrietan udazkenean zerbait ospatzearen ideia entzun duela dio Legarrak. «Baina, nork dio orduan ere ez dela kutsatzeko arriskurik izango? Oso zaila ikusten dut, eta iruditzen zait aurtengo festa guztiak bertan behera geratuko direla», nabarmentzen du Asteasuko alkateak.


Ibarrako gazteek, berriz, ez dute beste datarik buruan, nahiz eta bertan behera geratuz gero, uda ondoren zerbait egiteko ideia mantentzen duten. Bestalde, jaiak udazkenean ospatu ohi dituzten azoka bereziarekin uztartzeko ideia azaldu dute Leaburun eta Belauntzan. Ondorioz, festarik gabe ez dira berdina izango, baina herriek behintzat ez dute itzaltzeko asmorik.

Anagrama Gurutzatuak


Soluzioen anagramak dira zutabeetan emandako hitzak

EZKER-ESKUIN GOITIK BEHERA

- | | |
|-------------|------------|
| 1. Hilketak | 1. Hitza |
| 4. Tiraria | 2. Aberiak |
| 6. Zakarra | 3. Ira |
| 8. Zubieta | 5. Erara |
| | 7. Eta |



Hitz gurutzatu zuriak



*Koadro honek 12 beltzune ditu.

Goitik behera

1. Ubideko herritar. Fosforoaren ikur kimikoa.
2. Soldata. Harri beltza.
3. Ituna, hitzarmena. Erbioa balio du.
4. Eguzki. Greziako eskualdea, Peloponesoko penintsulan.
5. Jaurtigai baten diametro. Euzko Alderdi Jeltzalea, labur-labur adierazita.
6. Idi, hitz elkartzeetan. Zubereraz, hasiera, hastapen.
7. Zuloa egin. Daude.
8. Bokala. Artzainek erabiltzen zuten biolinaren antzeko musika tresna.
9. Quintana, txirindulari kolonbiarra. Modu latzean.
10. Herrestan. Bokala.
11. Sua iragartzen du. Longidako herrixka.

Ezker eskuin

1. Usteak, bereziki jakintzagaietarako buruzkoak.
2. Bekatu bat zigortzeari utzi. Laborarien lanabes.
3. Urteko bederatzigarren hil. Aihena, mahatsondoaren adarra.
4. Du, niri. Argalak, meheak.
5. Bokala. Ozeano Bareko hegazti handi.
6. Itsustua. Herri hizkeran, eta.
7. Tenaza, kurrika. Erabat bustirik.
8. Abaraska, orraze. Adia eginez.
9. Musika nota, eskalan bigarrena. Irizten nion.
10. Beirak, kristalak. Kontsonantea.
11. Aurkintza. Joan den urtean.

LARUNBATEAN UZTURRERA IGOZKEKO ARAUAK

Pertsonen arteko gutxieneko distantzia 2 metrokoa da

kirola egiteko ordubeteko muga badago, 30 minutu ondoren buelta etxera.

30 min

Gurutzean hamaiketako egitea debekatua dago. Iritxi ta buelta.

Geratuko diren ehundaka lesioak, Asuntzion Klinikari artatuko dira

BELAUNA! ESGINZEA!

H

GORKA SALABERRIA

Amasako bidearen baldintzak hobetzeko lan egingo du udalak

GI-3751 errepidearen segurtasunaz aritzeko lan talde bat sortzeko konpromisoa agertu du; Gipuzkoako Senideak elkartearen adierazpena ere onartu du udalak

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasako herritar talde bat «oso kezkatuta» dago bertara doan errepidearen egoeratik eta ezin-negon hori adierazi diote Amasa-Villabonako Udalari. Otsailean batzar batean bildu ziren 40 bizilagun eta erabaki zuten berehala aurkitu behar zaiola irtenbide bat egoerari, ezbehar larriren bat gertatu aurretik. Udalari gaia erantzukizunaz hartzea eskatzen diote eta lehenbailehen errepidearen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundian bilera eskaerak luzatzea. Gaia jorrazteko lan talde bat sortzea ere proposatzen dute amasarrek.

Asteartean Amasa-Villabonako Udalak egindako ohiko osoko bilkuran Xabat Laborde Hirigintza zinegotziak problematika honen berri aspalditik dutela esan zuen: «Aldapa handia dago, errepidea bi norabideetako da, trafikoa handia ibiltzen da eta ez dago espaloirik, irisgarritasun aldetik ez ditu baldintzak betetzen eta arriskutsua da, batez ere oinezkoentzat». Udal gobernuak gaiaren inguruko erakunde adierazpen bat onartzea proposatu



Amasara doan GI-3751 errepidearen egoerarekin eta segurtasun faltarekin kezkatuta daude bizilagunak. J.M.

zien gainerako udal taldeei eta udalbatzak aho batez eman zion oniritzia testuari.

Honenbestez, Amasako zenbait bizilagunek segurtasun baldintzen inguruan azaldu duten kezkarerik bat egin eta ezinegona konpartitzen du Amasa-Villabonako Udalak. Bide batez, errepidearen eskumena duen Gipuz-

koako Foru Aldundiari dagozkion neurriak har ditzan eskatu dio, ezbeharren bat gertatu aurretik, eta lehen urrats gisa, Bide Azpiegituretako sailarekin harremanetan jarriko da egoeraren berri emateko. Amasako bizilagunek eskatu bezala, lan talde bat osatuko da udalean, gai honen eramango duen ibilbidea

modu adostuan gidatzeko eta amasarrek ere parte hartu ahal izango dute lan talde horretan.

GIPUZKOAKO SENIDEEN ESKEA

Gipuzkoako Senideak elkarteak erresidentzietako lan-gatazka konpontzeko eskaerarekin bat egin du Amasa-Villabonako Udalak, elkarteak aurkeztutako

adierazpenari baiezkota emanda, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJ eta PSE-EE alderdien absentzioarekin. Elkarteak dio adinekoen arreta lehentasunezko gaia dela, presazko kontu bat, «irizpide politiko sindikalen gorabeheren mende egon ezin dena».

Adierazpen hau onartuta, Amasa-Villabonako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egiten dio behar diren neurriak har ditzan erresidentzietako lan gatazka hori konpontzeko, gatazka horrek erabateko eragina baitu adinekoengan. Aldi berean eskatzen dio familiei kobratutako kuoten eta eman gabeko zerbitzuen ehuneko zatiak itzultzeko, aurrez agertutako konpromisoa betez.

Amasa-Villabonako Udalak arreta-ratioak berriz aztertzeko eskaera luzatu dio aldundiari, «ez errentagarritasun ekonomikoaren irizpideen arabera, baizik eta mendekotasuna duten eta ahulak diren pertsonei zerbitzua emateko, zerbitzu instrumentalizatu bat baino zerbitzu gehiago behar baitute». Horregatik, Senideak elkarteak uste du lan gatazka konpontzeko parte diren alde guztiak bilduko dituen mahai bat eratu behar dela eta eskaera hori bera luzatu dio Amasa-Villabonako Gipuzkoako Foru Aldundiari asteartean onartutako adierazpenarekin.

Amaitzeko, COVID-19aren aurkako borrokari buruz PSE-EEko taldeak aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuten Amasa-Villabonako udalbatza osatzen duten alderdiek.



ESKER TXALOAK SANTIAGO EGOITZATIK

«Eskerrik asko» jartzen zuen pankarta baten atzean jarri ziren joan den ostiralean Villabonako Santiago adinekoen egoitzako egoiliarak eta langileak. Egunero jasotzen dituzten txaloak eta animoak itzuli zizkieten auzotarrei. LEYRE CARRASCO

Etxean kirola eta ariketa fisikoa egiteko ekimena

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaleko kirol sailak, konfinamendu egoera honetan herritarren osasuna zaintzeko beharrezkoa den kirol jarduerak egitea sustatzeko helburuarekin hARITU ekimena jarri du martxan.

Proiektu hau garatzeko herriko hainbat kirolari boluntarioen laguntza izan dute eta udala eskertuta agertu da beren etxean bideoak grabatzeko prestutasuna agertu duten kirolari horiekin guztiekin.

Oraingo Oihan Lopetegi, Gorra Kamio eta Jon Amiama aritu dira proposamenak luzatzen. Haurretatik gazteetara, adin tar-

te ezberdinetako herritarrei etxean ariketa fisikoa eta kirola egiteko aukerak erakusten dizkiete Amasa-Villabonako Udalen YouTube kanalean. «Herritarrek etxean aritzuz herria harilkatzea da helburua», aipatu dute ekimenaren bultzatzaileek.

Hala ere, hARITU proposamen irekia denez, herriari zerbitzu eskaini nahi dionak bideoa grabatu dezakeela aipatu dute orain arteko parte-hartzaileek. Horretarako, bideoa honako helbide elektronikora bidali behar da: herriaritu@gmail.com. Dagoeneko udalaren YouTube kanalean bost saio ikusgai dira eta honenbestez herritarrek animatu dituzte kirola egitera.

Tolosa CF Eskubaloiak zortzigarren bukatu du liga


Liga amaitutzat eman du Espainiako Federazioak, eta jokaturako azken jardunaldiko sailkapena hartu da kontuan denboraldirako

Imanol Garcia Landa Tolosa

Denboraldia bukatu zaie Tolosa CF Eskubaloia lehen maila nazionalako taldekoei. Espainiako Federazioak Asobal Liga (lehen maila), Zilarrezko Maila (bigarren maila) eta lehen maila nazionalako liga (hirugarren maila) amaitutzat eman ditu. Hori horrela, sailkapenak jokaturako azken jardunaldian geratu ziren bezala utzi dira, eta, beraz, Tolosa CF-k zortzigarren amaitu du liga. Jon Iraola entrenatzaileak azaldu duenez, denboraldia «oso positiboa» izan da.

Beste erabaki nagusia igoerak izango direla eta mailaz ez dela talderik jaitsiko izan da. «Horrek esan nahi du igotzen direnak gustura geratu direla, eta jaitsiera postuetan zeudenak ere bai», zehaztu du Iraolak. Beraien multzotik lehenengoa igoko da Zilarrezko Mailara, baina oraindik ez dakite zehazki zenbat talde igoko diren beraien multzora bigarren maila nazionaletik. «Uste dut erabakia ondo hartu dela klub gehienetan, egoera zein den ikusita. Igotzeko eta jaisteko postuetan saltsa izan da, eta esango nuke guztiak kontentu daudela. Guk zortzigarren amaituta ezin dugu gauza askorik eskatu».

Lehenengo denboraldia izan da Iraolarentzat talde nagusiko entrenatzaile moduan. Talde oso berrituarekin aritu da lanean, jokalaria batzuk utzi zutelako eta hainbat gazte igo zirelako lehen taldera. «Nire ustez balantzea oso positiboa da. Gorabehera handiko denboraldia izan dugu, baina logikoa da ere bai, ikusita zenbat baja izan ditugun, eta zenbat jende berri eta zenbat gazte sartu diren taldean, eta gainera entrenatzaile berriarekin», esan du Iraolak. «Liga oso lehiakorra da. Hasierako tartean ez ginen batere fin aritu, baina gero pixkana-pixkana hobetzen joan gara eta azkenaldirako oso partida onak egiten eta oso garaipen garrantzitsuak lortzen ari ginen».



Julen Garcia Tolosa CF Eskubaloia taldeko jokalaria, etxean entrenatzen. ATARIA

Bide horretatik, etenaldia izateak pena ematen diola azaldu du, «taldearen une onenean iritsi zelako. Bagenekien edonor irabazteko gai ginela egiten ari ginen joko mailarekin, eta liga bertan behera ez bazen geratu agian seigarren posturaino iristea posible izango zen». Lortutako sentazio horiek «denboraldi-aurre on batekin» berreskuratu daitezkeela esan du Iraolak. «Etenaldi hau guztientzako da eta inori ez dio etekinik emango, eta normaltasuna bueltatzen de-

nean denok zerotik hasiko bagina bezala izango da».

Oraindik ez dute garbi noiz hasi ahalko diren Usabal kiroldegian taldean entrenatzen. «Guk kontrolatzen ez ditugun hainbat faktore daude. Ez dakigu noiz hasiko den liga, eta ezta ere kiroldegiak noiz zabalduko diren. Beraz, onena da zain egotea, eta martxan jartzen denerako dena prest izatea», esan du entrenatzaileak. Denboraldi honetan abuztuaren bigarren astearren inguruan hasi ziren denboraldi-

aurrea, eta hurrengoa ere garai berean hastea ondo legokeela gaineratu du.

JOKALARI BAT, PRESTATZAILE

Bitartean ariketa fisikoak egiten ari dira jokalaria. «Azkenean eskubaloian baloiarekin jokatzen da, eta horixe da faltan botatzen duguna, baloiarekin kontaktua izatea, eta baita korrika lasai egiteko metroak izatea», esan du Iraolak. Entrenamenduak prestatzen taldeko jokalaria bat ari da, Julen Garcia ibartarra. «Zortea

dugu Julenek Jarduera Fisiko eta Kirolen Zientzietan gradua bukatu berri duelako, eta garbi dago berak nik eta Esteban bigarren entrenatzaileak baino gehiago dakiela, eta bere esku utzi dugu guztia», esan du Iraolak. Garciak asteko ariketak prestatzen ditu eta beste jokalariei bidaltzen dizkie egiteko. «Nik konfiantza dut jokariengan, eta seguru ari direla esandako ariketak ondo-ondo egiten», gaineratu du entrenatzaileak.

Alde psikologikotik jokalaria ondo ikusten dituela esan du Iraolak. Zentzu horretan gogora ekarri ditu jubenil mailako taldeko jokalaria, txapelketa garrantzitsu bat jokatzeke aukerarik gabe geratu direlako: «Espainiako Txapelketa jokatzeke ilusioz zeuden. Oso ondo ari ziren eta Euskadiko Txapelketako finala jokatzeke txartela lortuta zeukaten bi jardunaldiren faltan. Espainiako Txapelketarako sailkatzeko aukera handiak zituzten». Hain justu, Iraola bera aurreko denboraldian jubenilen entrenatzailea izan zen eta Espainiako Txapelketaren lehen fasea jokatzen zuten. «Batzuk bigarren aldiz jokatzeke aukera izango zuten, beste batzuk lehen aldiz, eta pena da horrelako esperientzia izateko aukera galtzea».

Datorren denboraldirako ez du planifikaziorik martxan jarri oraindik Iraolak. «Egun ditugun jokalariekin ondo gaude. Agian igo daiteke jokalariren bat edo beste, baina hori aurrerago erabakiko da», esan du Iraolak. Bigarren urtea izango litzateke berarentzat entrenatzaile moduan: «Bigarren urtea zentzu batean errazagoa izan daiteke niretzat. Maila hau berria zen niretzat entrenatzaile moduan; jubenilak entrenatsetik nentorren, eta aurretik neskak kadeteetatik entrenatsetik. Orain entrenatzaile moduan ikusi dut nondik nora doan liga hau, eta ea bigarrena lehenengo urtea baino hobea izaten den».

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

Inoiz baino
ALAIAGO
izanen da.

ANIMO!!



OSTEGUNA, 2020KO APirilak 30

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezere arreta zerbitzua: 943 30 43 46




www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Ostiral honetan itzuliko da *Mingaina Txulora* saioa, bereziki itxialdiari begira. IBAILUQUE

Erotika jorratzen duen Ataria Irratiko 'Mingaina Txulora' saioak ostiralean ekingo dio berriro, 21:00etatik aurrera; konfinamendua herritarren erotikan izaten ari den eragina jorratuz hasiko da.

Erotika bueltan da

Erredakzioa

Itxialdiak herritar ororen egunerokoan aldaketak ekarri ditu, eta egoera berri-
ra egokitu beharra izan da. Batzuek errazago egingo zuten, eta beste batzuei, berriz, gehiago kostatzen ari zaie mol-
datzea. Egokitu arren, ordea, hu-
tsune batzuk nabariak dira, eta kasu askotan, ordezkaezinak. Erotika izan daiteke hutsune edo behar horietako bat. Bakarka, bi-
kotean nahiz taldeka egiten du-
gun erotika aldatu edo murriztu-

ta ikusi dugu azken asteetan. Bada, osasun krisiak eragindako etenaldiaren ondoren, gai hori ardatz hartuta, ekingo dio berri-
ro ere, ATARIA IRRATI-ko *Mingaina Txulora* saioak ostiralean. Hamabostean behin erotikaren in-
guruko askotariko gaiak jorratu izan dituzte saioan, eta aurreran-
tzean ostiralero izango da, ordu berean, 21:00etan, FM-ko 107.6an edota ataria.eus-en en-
tzungai.

Jon Imanol Etxabe sexologoa-
rekin batera erotikaren inguruan ditugun zalantzak argitzearekin

batera, beraz, egunotan itxial-
dian egoteak herritarrengan izan dituen ondorio desberdinez ari-
ko gara, besteak beste. Hala, aro digitalean bizi garen honetan erotikak horretan zer pisu duen ikusiko dugu, konfinamendua bakarrik igarotzen ari direnek nola bizi duten edota itxialdi-
aren osteko normaltasuna nola-
koa izango den.

Ohi bezala, entzuleen kez-
kak, zalantzak edota proposamenak whatsapez (687410033) eta Ins-
tagramez (@Mingainatxulora) egin ahalko dira.

OSTEGUNA 30

ATARIA IRRATIA

09:00-13:00. Baserritik lehen sek-
toreari buruzko saioa, *Postalak* bi-
daia tartea, *Patxadaz* elkarriketa
tartea, *Kantazgora* eskualdeko mu-
sikarien proposamenekin osatutako
musika saioa eta *Entzuteko jaiok*
musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko
magazina.

19:00. Ipuinak ez dira geldituko

20:00. Playback Ataria. Musika
saioa, Adriana Gaultierrekin.

21:00. Mingaina Txulora. Erotikari
buruzko saioa, Jon Imanol Etxabe
sexologoarekin.

28 KANALA

GAUR

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Aran-
txa Orbegozo)

11:30. Gaurkoan Tolosaldekin

12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Izas-
kun Lazkano)

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosaldekin

22:00. Spinning klasea

23:30. Gaurkoan Tolosaldekin

BIHAR

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Itsaso
Ugartemendia)

11:30. Gaurkoan Tolosaldekin

12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Leire
Laca)

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosaldekin

21:30. Gaurkoan Tolosaldekin

22:00. Amets Yoga estudioa

23:30. Gaurkoan Tolosaldekin

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. J.M. Etxebes-
te. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz.
Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giroa lasaitu ezinik ibi-
liko da. Goiza berriz ere la-
saia izango da, hodeiak eta
ostarteak tartekatuz eta eguraldi
nahiko argiarekin. Arratsaldeko le-
hen orduetik aurrera, berriz ere ho-
deitza ugaritu eta euri pixka bat
izango dugu. Euria orokorrean zapa-
rrada ahul modura botako du, baina
puntualki zaparrada mardulagoren
bat izango da. Haizeak goizean
hego-mendebaldetik joko du, arra-
tsaldean ipar-mendebaldera alda-
tuz eta tenperatura maximoak 17-
18 graduan joko du goia.

Bihar. Berriz ere giro naha-
sia. Goiza beste behin lasaia
izango da, hodeiak eta os-
tarteekin eta hego-mendebaldeko
haizearekin. Gainera tenperatura
nabarmen igo eta giro epela izango
da, maximoa 24-25 graduan koka-
tuko delarik. Arratsaldeko lehen or-
duan haizeak ipar-mendebaldera
egin, zerua estali eta euri zaparrada
batzuk izango ditugu. Gainera ten-
peraturek freskatzera egingo dute.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunka-
rian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

15,50€

31€

45€

51€

Atarikideak

12€

23€

33€

38€

943 65 56 95

ataria@ataria.info

San Esteban 20

Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez